Biztanleen udal-erroldan izena ematea - Informazio orokorra

Zertarako

Biztanleen udal-erroldan izena ematea, beste udalerri batetik edo atzerritik etortzeagatik helbidea aldatu duelako.

Ekarri behar diren agiriak (tramitazio presentziala):

- Biztanleen udal-erroldan izena emateko inprimakia (*udaletxean jaso eta beteko da*).

- Erroldatu beharreko lagunaren nortasuna egiaztatzeko jatorrizko dokumentua eta horren fotokopia (NAN; famili liburua, 15 urtetik beherakoa izan eta NANik ez badu; egoitza-txartela, pasaportea eta abar).

- Etxebizitza okupatzen duela egiaztatzeko jatorrizko dokumentua eta fotokopia (jabetza-eskritura, alokairu-kontratua, baimena, telefono, ur, elektrizitate edo bestelako hornidura ematen duen enpresaren kontratua edo erreziboa etab.) *(inprimakia udaletxean jaso)*

Unitate arduradunak eskubidea du beste dokumentu osagarriren bat eskatzeko, izapidea behar bezala bete ahal izateko.

Lege-Arautegia

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) aldatzen duena, Udal Erroldari dagokion atalean.

Abenduaren 20ko 2612/1996 Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua aldatzen duena.

Oharrak

Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak:

- Behin betiko egoitza-baimenik ez badute, Erroldaren inskripzioa bi urtean behin berritu beharko dute.

- Horrela egin ezean, inskripzioa iraungitzat joko da (Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.1 artikulua, 2. paragrafoa)